

Karmele Mitxelenaren zoriona

Hainbat sari eskuratu ditu, haien artean, ipuin liburuentzako Donostia Kutxa Saria ‘Haragizko mamuak’ deituriko lanagatik

JON KORTAZAR

Karmele Mitxelena (Oiarzun, 1988) euskal letretan izena eta ospea lortzen ari den idazlea da. Bere biografian begiratzuz, hainbat sari eskuratu dituela ikus dezakegu. Haien artean, ipuin liburuentzako Donostia Kutxa Saria ‘Haragizko mamuak’ deituriko lanagatik.

Zubikarai saria

Bere ondokoren bateko eskuz idatzita dirudien wikipedian ikusten badu bere profila, kontagintzan 19 sari irabazi dituela jakingo du. Azkena Zubikarai beka saria izan da, Goio Ramosekin batera eskuratu zuena. Agertu berri da horren emaitza: ‘Zoriona,

edo antzeko zerbait’ nobela laburra. Dakidanez, lehen aldia da ipuingintzatik nobelara salto egin duena.

Esango nuke jarraitu beharreko idazlea dugula Karmele Mitxelena Etxebeste, denborak adieraziko digu baina zuzen edo oker gabiltzan eta bere idaztan-kera umotuko den ala ez. Nik idazteko manera garbiak ikusten dizkiot.

Hizkuntzaren erabilpen trebea

Beste emakume euskal idazlearen antzera, bertsolaritatik datorkigun kontalaria da Mitxelena. Azken urteotan, bertsoan irabazitako itzala lanaren za-

balkunderako erabili ohi delako, kontakizunera bidaia egin dutenen zerrenda ez da laburra, eta bat batean datoz burura: Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal... Eta saiakerara Maialen Lujanbio eta Ane Labaka.

Bide horretan kokatu du bere burua Mitxelena Etxebestek, bere zorionaren bila doan emakume alargun protagonistaren historia kontatzerako orduan. Senarrak burua bota zuen depresioak jota eta hiru urteren buruan –eta ez kontrazalak dioen moduan, «alargundu berria»– Cadaquesera bakarrik bidaiatzea; han aspaldiko senargai ohia, Manu, aurkitu du eta harekin bizitza bererraitzea erabaki du.

Eta aitortu behar dugu bertso-laritzatik prosara hizkuntzaren erabilpen trebea ekarri duela. Badaki hizkuntza erabiltzen. Eta lirikotasuna nagusi duen kontakizun horretan maiz eman du horren berri. Nire iritziz, hiru ezaugarri berezi ditu kontaketa-aren diskurtsoa eratze-ko orduan.

Lehena errepikapena da. Atal bat idatzi behar duenean, maiz jo du errepikapenaren jokora, adibidez «etengabe» hitzaren errepikapena dugu laugarren kapitulu-
an. Bigarrena, detaileei emandako garrantzia. Adibidez, Manuren alkandoran botoi bat gaizki lotua dela esango zaigu, ondoren, elkar besarkatzen dutenean, eta nobelaren gakoan, botoi hori jausiko da, pertsonaien arteko lotura sinbolizatuz.

Hirugarrenez, kontatzeko eskua nabaritu-ko nuke. Nobela senarra izandakoari mintzatuz hasten da, baina oso zaila da «zuka» ari den nobela oso bat idaztea, horregatik aldatzen ditu

tonuak egileak, eta «niaren» bi-dez bere baitan sartu gaitu, edo alabaren telefono mezuak tonu hotz batean kontaktzen zaizkigu. Eta ironia ez da falta, beste Mitxelena haren, Olatz Mitxelenaren, liburua aipatzen denean, pertsonaiak «Hezur bat eztarrian» duela ohar-tuz.

Historia ezaguna

Hala ere, historiaren mataza ezagunegia dela adierazi beharko genuke. Nahiz eta emakume honen barrena ongi marraztua egon, kontatu duen historia

noiz edo noiz irakurria dugu. Alarguntzako pisua arindu eta oporretan joatea erabaki duenean, han aspaldi laguna aurkitzea eta harekin batera bizitza berri bati ekitea argumentu eza-gunegia dela dirudi.

Baina egituraketan ere bere joera nagusia erabili izan du Karmele Mitxelenak. Senarraren heriotzarekin hasi eta amaren heriotzarekin bukatu du nobela, egitura aldetik arku esanguratsua eraikiz.



Karmele Mitxelena



Eman hegoak euskarari



Zurikeria zipriztintzeko

JON MARTIN-ETXEBESTE

Feminismoaren erauntsiak irauli egin ditu munduaren pentsatzeko eta jokatzeko moduak. Rafia Zakariak feminismo zuriaren lehentasun, esperientzia eta balioak eta komunitate azpiratutako emakumeenak kontrajartzen ditu liburu honetan. Zortzi kapitulutan barrena emakume eurozentristen pribilegioak deseraikitze-ko ariketa bat egiten du, eta borroka berreraikitze-ko gidar-
erroak proposatzen. Zakariak gutxiengo etnikoetako emakumeen adibide zehatzak darabiltza bere kritikak arrazoit-ze-ko eta gaingituak diruditen zenbait gai-
ei buruz zer pentsa-
tua sortze-ko: mendebaldetik sinplifikatu ohi den mutilazio genitalaren gaiari buruz edo espetxe sistemari buruz, adibi-
dez. Eskafandra saileko liburu hau mamitsua da, baina ez da irakurketa samurrekoa; ira-

kurlea interpelatua sentiarazi nahi du idazleak. Amaia Apaulazak lan bikaina egin du liburua itzultzen.

Feminismoaren barruan ere jendar-
teko botere-dinamikak errepikatzen dira. Askotan ikuspegi kolonialistatik begira-
tu zaiela dio, salbatzaile zuriaren jarre-
rak gailendu direla; menpekotasuna be-
tikotzen duen elkartasun politikak apli-
katu zaizkiela beraien lurraldeei, eta
gutxietsi egin direla haien beharrak, ba-
lioak eta sinesmenak. Biztanleriaren zati
handiena izan arren errepresentazio

baxua dutela irizten dio Za-
kariak eta gehiegitan hitz egin
izan dela haien izenean. Ema-
kume, arrazializatu, txiro edo
desgaitu, zapalkuntza hi-
rukoitza jasaten dute. Horre-
gatik, lidergoa erreklamatz-
en du emakume arrazializa-
tuentzat. Aitakeriatik edo ka-
ritatetik urrun dagoen elkar-
tasun inklusiboa aldarrika-
tzen du liburuak erabateko
berdintasunerako bidean. Az-
keen orrialdetan irakurle-
taldeetarako gida bat eransten
da, liburuaren lanketa erraz-
ten duena; sortuko al du zer
pentsatua Euskal Herrian
ere...

**FEMINISMO
ZURIAREN
AURKA**
RAFIA ZAKARIA
Elkar/Jakin
264 or,
21,50 euro



Zubi baten isla

J. MARTIN-ETXEBESTE

Irakule, itzuli honako esaldia gaztelania-
ra: «Autobusak, bihar eta berandu». Euskaldunak gaztelaniaz pentsatu eta euskarara ekarritako esaldiak irakurtze-
ra ohituta daude. Elebidunek, elebaka-
rrek ez bezala, zubia bi norabidetan
zeharkatzeko gaitasuna dute eta Angel Errok jolas hori zukutu du. Idazlea gai izan da zenbait poematan hitz jokoak esan-
indar berberaz birsor-
tzeko bi hizkuntzatan eta ko-
kagune berean (‘Basia mile’ poeman, kasu), eta horrela-
koetan zail da jakiten zein den jatorrizko bertsioa eta zein itzulpena. Beste batzuetan gaz-
telaniazko bertsioa baino za-
balagoa, sakonagoa, da euska-
razko poema (‘Nada-Aberria, egia, ertia, poesia’; eta eleba-
karraren hizkuntza eta kultu-
ra galera erretratatu-
a geratzen da. Zenbait poematan, ordea, izenburuan baizik ez dute lo-

tura bi poemek eta garun bereko bi zonal-
de estankok idatziak dirudite; norbere bu-
ruaren aurka xake partida bat jokatu-
ko balute bezala.

Zaintza, nostalgia, laguntasuna, maita-
suna eta literatura dira liburuaren gai na-
gusiak eta aparteko elegantziaz kontatuak
daude. Poema bakoitzaren hizkuntza-hu-
rrenkerak irakurlearen pertzepzioa aldat-
zen du: lehengo irakurri denak lehenago
idatzia dela pentsarazi diezaguke eta esku-
ineko poemarekin alderaketa sortzen du
ezinbestean; baina dena da idazlearen

hautua... Liburu jolastia da, lakuan harri xapalak botaraz-
tea bezain. Navallo Villoslada Literatura Sariaren emaitza da liburu hau eta, egia esan, estimatzen dira tamaina ho-
netako askatasuna eta ausar-
dia. Maiz egin izan ditu Angel Errok itzultzaile lanak, ohiko kortsetik ateratzeko zilegita-
sunik sentitu gabe; oraingoan, ordea, solte jardun du. Poe-
sia liburu bat da, baina baita testuak itzultzearen ariketa-
ri buruzko saiakera bat ere; bilaketa ezinezko, baina ezin ederrago bat: «ez nazazu neu-
re baitan bilatu / ez nagoela-
ko nire larruan».

**ITZULPEN-
TRADUCCIÓN**
ANGEL ERRO
Nafarroako
Gobernua
102 or,
15 euro



SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **L'arratien** Toti Martinez de lezea. Erein.
- 2 **Horma** Marlen Haushofer. Erein.
- 3 **Ene baitan bizi da** Maddi Ane Txoperena. Elkar.
- 4 **Hetero** Uxue Alberdi. Susa.

EZ FIKZIOA

- 1 **Iñaki Perurena-harria bedelagun** Fermin Erbiti. Pamiela.
- 2 **Idazketa labana bat da** Annie Ernaux. Katakarak.
- 3 **Ele eta hitz, ahoz eta idantziz** Jose Angel Irigaray. Pamiela.
- 4 **Bizi bihotzak egin arte** Aloña Erauskin. Zorrotz.